




Müsi
Karen
EGÜNA 25



URDINARBE, ORDIARP
ARRAMAIATZAREN
6, 7, 8 JUIN 2014

- LE SUPPLÉMENT -



- ALKARTEA / HITZ ZONBAITETAN

nor giren
zonbakietan
gurekila lanean ari direnak
bil Xokoa eta laborantxa mündüa

- 2013. URTEKO EMAITZAK ETA KANBIOAK

dantzaren erezeko erakuska
dantzaren egüna

- 2014. URTEKO EGITARAUUA

berritzapenaren 25 orenak
musika egitaraua
hiru egünentako egitaraua / flyer

- EDIRENGIA -

BIL XOKOA

Bil Xokoa da Xiberoko eta Euskal Herri osoko kultura bizitarzunean parte hartzen duan baserri mündüko alkarte bat.

Mügaz bestaldekoekila kürürütxatzez eta lan egitez, kartiel hontako alkarte desberdinekila arrolatzez, Bil Xokoaren helbürüa da euskararen süstatzea, kultura sorkuntzen bidez, jentarte eta ekonomia geiekilako gogozkaldiak joanaraztez edo jendarte eta kirol sailtako antolamentüak plantan ezartez. Bil Xokoak, halaber, artista elibati batzarri egiten deie egonaldi elibatentako, koblanan aritzeko eta sagardu aihari gaüaldiak plantatzen dütü. Alkarte 100 bat kide edo lagüntzaleetan bermatzen da.

25. URTEALA HELTÜRİK, MÜSIKAREN EGÜNA KÜLTÜRA HITZORDÜ NAUSI BAT EGIN DA:

Dagün ekainaren 6,7 eta 8an, Urdiñarbeko herriak – 500 bizizale igarantxerik badü – Musikaren Egüna eskentüren dü, 25. urteko. Hiru egünez, BIL XOKOA alkarteak antolatürük, kontzertüak, gogozkaldi-eztabadakak, antzerki emaiteak aldizkatüko dira.

Musikaren Egüna da herri kultura güzien jeia, zoinetan ere lekü berezia emaiten den euskarari eta beste herri hizkuntzer.

Iganteko egünaldian parte hartzea dohainik izatez, jenteak badü, hala nahi duan ber, jiteko eta libertitzeko paradarik eta pastarik.

Herrialdeen eta gizaldien arteko eta algarrekilanko jei bat da Musikaren Egüna, euskal kulturearen eta mündü zabaleko beste herrialdeetako kulturen artean ezagützak egiteko eta arrolatzeko parada emaiten düana.

Egitaraua da beti aberatsa: ederlan erakuskak, antzerki agerraldiak, karrika harrotzeak, haurrentako libertimentüak, dantza emanaldiak, gogozkatze eta eztabadakatzeko arteak eta, prefosta, gisa hanitxetako kantü eta müsika entzüteak. Hola, hiru egünez, jente hanitx biltzen eta kürürütxatzen da, kultureak bizitzeko eta ekonomia nola jentarte geietzaz gogozkatzeko eta mintzatzeko.

HERRIKO HONENBESTE LEKÜTAN BADA ZER IKUS, ZER ENTZÜN ETA ZERTAN IGANAT

Ehün bat lanean arizalaren parte-hartzeari esker, jei egün horik Urdiñarbeko lekü hanitxetara zabaltzen dira:

ELIZAK aterbü emaiten deie a capella kantüz aritzeer,

KÜLTÜRA ANIMAZIONE GÜNEAK hartzen dütü erakuskak eta gogozkaldi-eztabadakatzeko

LE CHISTERA jatetxean agitzen dira antzerki emanaldiak,

KARRIKAK harrotzen dütü dantzariak eta antzerkilariek

ARRABOTÜ PLAZA da kontzertüen entzüteko bai eta jateko eta edateko lekü haütüa.

Musikaren Egünean laket izan dira artista hanitx, heben gaintiko kultura bai beste sailtako biziarralen agoinü handia eta gure kultura nortazün azkarra borogatü beite.

MÜSIKAREN EGÜNA DA, ARREN, HERRI KÜLTÜRA GÜZIEN JEIA, KÜLTÜRA AGERGÜNE HANDIETARIK HÜRRÜN DEN KARTIEL BATETAN PLANTATÜRİK, HERRI HIZKUNTZEN LAU AIZETARA ZABALTZEKO NAHIKÜNTEAREKILA.

IGARAN DIREN 24 URTETAN, HANITX EGIN DA. ONDOKO HAUK DIRA MÜSIKAREN EGÜNAREN ZONBAKI AIPAGARRIENAK:

250 ikusgarri beno haboro antolatze, horietarik **HOGEI** baten altetxea Musikaren Egünean lehentze eman direnak eta gisa horrez beste hanitx lekütara zabaltü direnak

24 erakuska, Eüskal Herriko ederlan egileen lanak ikusarazteko

19 200 apairü, Xiberoko Ikastolek adelatürik, kartieleko mozkinekila (Axuria koperatikako aragia, herriko baratzezainen barazkiak, Azkorria laborari gaznakagiako gazna...)

100 lanean arizale, 3 egünen lüzaran

150 a kide, horietarik **70** MSAn parteliant

1500 M² m² oihal-aterbü

150M² taulada

108 000 bestaliarren altexea, 1989. urteaz geroz

Kartieleko **60** entpresaren lagüngoia emaitea

15 000 afixa eta **240 000** flyers, eüskaraz eta frantsesez eginik

MILAKA pintxo neskatila-emazte elibatek beren ogüz adelatürik

- LES CHIFFRES CLÉS -

MÜSIKAREN EGÜNAK ARRAKASTA BILDÜ BADÜ, XIBEROKO HONENBESTE ALKARTE, ENTREPRESA ETA ALGARKIDEGOAREKILA LANEAN ARITZEAREN ONDORAMENA DA ERE:

Aintzindariak, Xiberoko Ikastolak, LARPS, Tokia, Uztaro, Hebentik, Azkorria, Indar Joku, Xiberoko Botza, Azia, Kakots' ateleria, Bertso eskola, Musik'alde, Cibistes de Soule ...

Mürrü margo elibaten egite, horietan dohain handiz erauntsi düelarik Irkus Robles, Gonzalo Etxebarria, Asisko Urmeneta eta Laure Gomez bezalako artistek ; margo handi elibaten moldatze, jeia agitü aitzin eta jeiaren denboran ; antzerki ikusgarri berri elibaten lehentze agertze, hala nola Kanbera doble famatüa eta LARPS eskolako ikasleek moldatü «laborantza egünko egünean» ; «Kauter balet» bezalako dantza ikusgarri manera berezikoak ; Xiberoko artista gazte elibaten erakusken plantatzeak... Bai egiazki, Musikaren Egüna, kültüraren sortzeko eta hedatzeko güne eta hitzordü funtsezkoa egin da, igaran diren 24 urte horietan.

MÜSIKAREN EGÜNA EÜSKAL HERRIKO JEI HANDIEN ETA ARRAKASTADÜNETARIK EGIN DA, HONENBESTE EGITÜREK EMAN DEIZKÜEN DIHARÜ LAGÜNGOER ESKER:

Pirinio Atlantikoetako Kontseilü jenerala
Euskal Kultur Erakundea
Urdiñarbeko Herriko Etxea
Xiberoko honenbeste entrepresa joanarazle eta ofiziale
Xiberoa-Herri Alkargoa



- LAGÜNTZALEAK -

LABORATXA IKASGIA BATEN ANTZERKILANA

Bil Xokoa eta LARPS laborantsa ikasgiak algarrekila lanean erauntsi dūe antzerki lan baten hontzeko helbūrūan. Antzerki ikusgarri horrek laborantxa mūdūa dū gei bezala hartū eta lantū, honenbeste gaintietarik: laborantxan plantatzea, familiakoekila lanean aritzea, laborari izatea eta maitalagūn bateki arrolatzea... horik oro ahalaz arraileriaz aipatzez ! Antzergintzala trebatzeko gisan, ikasaldi elibat plantatū dira 2013ko setemeretik haste, horietan parte-hartū dūelarik Pierre Visler, Pierre Sagardoy, Aurélie Solanille eta hamabost bat ikaslek. Ikusgarri hau ekainaren 6an emanik dateke, Mūsikaren Egūnaren barne.

BESTETARIK HORRA ZAIZKŪN MŪSIKA EZAGŪTZE

Mūsikaren Egūnaren aitzineko aste gūzian, mūsika ikasgia elibat badirateke, Java ūharteko gamelan mūsika taldearen berri hartzeko eta perkuzionekilako sonū egite manera horri heintto bate-tan plantatzeko. Ikasgia horik elizan eginen dira, Lagūn arte alkarteko Kristof Iriarten ūngūrūan. Eskola elibatetako haurrek parte hartūren dūe: Urdiñarbe, Mūsikildi, Idauze-Mendiko ikasgūnekoek eta Sohūtako ikastolakoek. Eskola horietako haur hanitx laborantxa mūdūkoak dira.

EŪSKAL KIROL EDO INDARKAKO JOKŪETARA LEHIATZE

Mūsikaren Egūn gūziz, eŪskal kirol edo indarkako jokūak plantatzen dira eta segalari, harri-atxazale edo aixkolari zoin-nausitzetan aritzen da kartieleko jente andana.

XIBEROKO GAZTEEN ERETZEKO IKERKA BAT

Hamar bat galto eginez, AZIA eta BIL XOKOA alkarteko kideek Xiberoko gazteriaren eretzeko ikerka bat joanaraziko dūe. Besta batzorde, kirol alkarte, laborari egitūren bidez hūllantūrik diratekean gazte horier galtatūren zaie nola ikusten dūen Xiberoa egūngo egūnean eta zer dioen gure kartiel honen geroaz. Arrapostūak grabatūrik dirateke eta ekainaren 7an, neskenegūnarekila, entzūnarazirik.

LABORARI GAZTE TALDE ELIBATEN PARTE HARTZEA BERRITZAPENAREN 25 ORENETAN

- BIL XOKOA ETA LABORANTXA MŪNDŪA -

**ORAI ARTINO, GOGOZKALDI-EZTABADAKATZE OHIZKOAK PLANTA-
TÜRİK, BIL XOKOAK EGÜN BAT OSORIK NAHI ÜKEN DÜ PLANTATÜ GEI
BAT MANERA DESBARDINETAN IKERTZEKO ETA ERAKUSKA, MINT-
ZALDI EDO SORTZAPEN LANEN BIDEZ JENTE HAVOROREN HUNKITZEKO
GISAN.**

- 2013.KO EGIN DIREN KANBIOAK -

DANTZAREN ERETZEKO ERAKUSKA

Xiberoko dantzaren presentatze aberats bat eginik izan da 2013ko maiatzaren 18ko egün osoan. Azken hamar urte horietako dantza agerraldietako argazki, irüdi eta beste ageriala ekarririk, bazen pasta ederrik Xiberoko eüskal kültüraren sail nausi honen aitzinabide eta kanbioen ikuskatzeko.

KAKOTS'ATELERIAKO GAZTEEN «DANTZA PARK» MUNTADÜRA

Xiberoko dantza-jauzietara trebatzeko muntadüra bat, gimnasietako eta skate parks tresnerien üdüripenez eraikirik. Moldatü diren bi bideo lanak, Gorrien eta Beltzen balde, bata-besteari bühürtzen dira bena bai eta algarri mintzatzen ere, dantzaren eretzeko bi harreman mota agertzez.

Gorriak : dantza trebatüen agerraldi propioak.

Beltzak : Xiberoko dantzak ikasi ez dütüen xiberotar elibaten potretak.

IRON ETA MAIDER TALDEKOEN IKUSGARRI ARROPEN ERAKUSKA

Bost xibetotar biltzen dütüan kantari eta müsikalari talde bat da Iron eta Maider. Beren kantore, müsika eta taula-jokoetan, Xiberoko herri kültürako pastak (kantorea eta dantza) eta heavy métal müsika kentea botitzen dütüe. Beren agerraldietako arropak, berriz, Xiberoko dantza tradizionalakoak dira, bena krokodilo larrüaren üdüriezko sky ekeian eginik dira. Bost urte han-hor kurritü ondoan, Iron eta Maider taldekoek ikusgarrientako arropa berezi horik ikusgei ützi deizküe.

AITZINDARI DANTZARIEN ARROPA BERRITÜAK

Erramun Garzia Hego Eüskal Herriko ofiziozko jostünak hainbat pastoraletako Aintzindari eta emazte Santan arropak ütxüras berritü dütü, 19. mente ürrentzeko eta 20. mente hatsarreko modelarik abiatzez. Lan horren jarraikitazüna segürtatzeko nahiarekila, Xiberoa-Herri Alkargoak, Xiberoko dantzari arropa berrien egiteko josle taldeak plantan ezarri dütü, Erramun Garziaren parteliangoarekin. Josle talde horiek egin Aintzindari eta emazte Satan arropakila erakuska bat plantatü da.

BUHAME ETA MASKARADETZAZ, HEBENTIK TALDEAREN LANAK


Hebentik taldekoek plantan ezarri erakuska honek Xiberoko maskaraden eta European gainti gisa berxeko ihauteen berri emaiten deikü, buhameen personajeak bereziki ikertzez. Hala, buhameek edo tziganoek Eüskal Herrian gainti ützi herexak eta bereziki ihaute tradizioeak ikertürik dira, Nicole Lougaroten lanetarik abiatzez.

ION ETA CLAUDE IRURETAGOYENA, DANTZARI ARROPA ZAHARBERRIZALE



Ion eta Claude Iruretagoyena aita-sembleek dantzari arropa elibat asmatü dütüe, beren ikusteko manieratik eta Agosti Xaho idazle famatüaren eta Georges Herelles ikerka egile ezagünaren aipamentarik abiatzez. Lehenagoko "kantiniarsa" eta "küküileroak" dütüe bereziki lantü. Erakuska hontan ikusten da ere "Aintzindari" dantzarien arropak denborarekila nola kanbiatü diren.

XIBEROKO LEHENAGOKO DANTZARI ARROPAK ARGAZKITAN

**NESKENEGÜNEKO EGITARAUEAN KANBIO BAT,
2013AN LEHENTZE ESPRABIRIK**



**SAIL HORTAKO JAKITÜN BATEK LAGÜNTÜRİK, XIBEROKO
LEHEN MAILAKO ESKOLETAKO HAURRAK, DANTZA JAUNT-
SIETZAZ EGIN DEN ERAKUSKAREN IKUSTEN EBILI ZIREN**



XIBEROKO DANTZAREN EGÜNA

Orai artino, gogozkaldi-eztabadakatze ohizkoak plantatürik, Bil Xokoak egün bat osorik nahi üken dü plantatü gei bat manera desbardineta ikertzeko eta erakuska, mintzaldi edo sortzapen lanen bidez jente habororen interesatzeko. Hala, Xiberoko dantzaz egün bat osorik plantatü da, hortan lagüntzale izan dütügularik Xiberoa-Herri Alkargoa, Mauleko Herriko Etxea eta Xiberoko Zohardia bai Aitzindariak alkarteak.

MINTZALDI-EZTABAKATZE :

«LEHENEKO MASKARADETARIK EGÜNGO MASKARADETARA»

Ion et Claude Iruretagoyena jakitünek xeheki aipatü deizküe lehenagoko denboretako dantza erakasleak, dantzak armadan ikastea eta Xiberoko maskaradak. Jean-Mixel Bedaxagarrek gaüza hanitx ikasarazi deizkü Bralea dantzaren arauetzaz eta erranahietzaz eta Thierry Truffaut etnologoak dantza sailaren eta jentarte baten beste sailen arteko lotürak entelegarazi deizkü.

Izan ditean izkiribaño, kültür ohidüra ikerzale edo sail horrez interesatürik bera, hanitx dira ohartzazten deiküenak, 19. mentearen bigerren partetik haste, Xiberoan badela dantzen emaiteko manera oso berezi bat, aberats bezain emaiteko gaitz, bai eta berarenak diren dantza süerteak ere.

«XIBANDRIAK» EDO LEHENAGOKO DANTZAK IKUSGEI

Nicole Lougarot et Michel Etxecopar lagüntzale, dantzari elibatek dantza zaharrak eman deizküe.

EZTABADAKA: « XIBEROKO DANTZA EGÜNKO EGÜNEAN... ETA BIHARKOAN ? »

Aitzindariak eta Xiberoko Zohardia dantzari alkartekoek, dantza emaile eta erakasleek, jauntsi egileek eta eüskal kültüraren hazleek beren ikusteko manera eta abürüpenak kürützatü dütüe Xiberoko dantzaren egünho egünekoaz eta geroaz: dantzen ikastea lehenago eta egünko egünean, arropak, teknikak, dantza eta kirola, neskatilak dantzan, gazteak eta dantza...

OHIZKO DANTZA-JAUZIAK ETA SORKUNTZA BALLET BAT

Xiberoko dozena bat dantza eskoletako dantzariak dantza-jauziak eman dütüe ohizko püntüetan. Herri zombaitetako dantzariak hiru gizalditakoak ziren. Ondotik, "Kauter ballet" ikusgarria eman zen. Sorkuntza lan hau hamar bat dantzariak emaiten düe eta beren arropa bereziek botitzen dütüe buhameenak, kauterenak eta ohizko dantzarienak. Bi dantzari saldoren arteko dantza-jauzi emaitetek eta espantoz aritzeek egiten düe ballet honen ikusgarritarzüna eta berezitarzüna.

**500 JENTEZ GOITI BILDÜ DÜ XIBEROKO DANTZAREN
ERETZEKO EGÜNALDI HORREK**

MÜSIKAREN EGÜNA 2014EKO EGITASMÜA

- GAZTE TOPAKETA 25 ORENEZ -

GAZTIAK BIHARKO XIBEROAN

25. Musikaren Egünarentako Bil Xokoak plantan ezarririk, ekainaren 7an, Urdiñarben

GEIA :

Oraiko xiberotar gazteriak nola ikusten dü biharko Xiberoa ?

ZER PLANTAZ GEI HORI ?

Xiberotar gazteek badüe, segürrean ere, Xiberoaren geroaz abürüpenik eta esperantxarik. 2014. urteko Müsikaren Egünean, gazteriaren ikusteko manera horik bildü nahi güntüke eta Xiberoaren geroa nola ikusten düen edo nolakoa nahi lükeen agerrarazi.

GEIA NOREKILA LANTÜ ?

Honenbeste lekütan ediren daitean gazte tandekilan: besta batzordetakoak, kültüra alkarteetan direnak, kiroletan aritzen direnak, eskolak jarraitzen dütüenak, laborari gazteak... edo sail horietarik kanpo liratekean bena zerbait berezirik egiten düen gazteak.

NOLA JOANARAZIKO DA GAZTEEN MINTZARAZTE HORI ?

- 1 Taldeetan diren edo ez diren eta ikusi behar liratekeen gazteen haütatze baten egitea
- 2 Haütatü gazte horien ikustera joaitea, non eta ediren daitean
- 3 Gazte horien abürüpen eta asmüetzaz berri hartzea, galtoak egitez
- 4 « Biharko Xiberoa 25 orenez » egitasmüan parte hartzea gazte horier gogoan harrarazi
- 5 « Biharko Xiberoa 25 orenez » egitasmüa dateke, gazte talde bakoitxak gei horren araberako lan baten egitea, algarren artean, asmatzez eta obratzez.

Asmatze eta obratze lan hori manera desbardin hanitzez egin daite: antzerki, müsika edo dantza sortzapenez, maketak moldatzez, informatika moldadürak baliatzez, ohizkoak diren egiteko manera elibat bestelakatzez, lehen eredü edo prototipak plantan ezartez...

NORK SÜSTATZEN AHAL LÜKE EGITASMÜ HAU ?

AZIA alkarteak, Xiberoa-Herri Alkargoak, Kontseilü jeneralak, bestek...

GAZTEEKILA LEHENTZE BILTZEAN EGIN LIRATEKEAN GALTOAK:

Xiberoan bizi edo eskolatürrik zira:

Zer gustatzen zaizü heben ? Kartielak dütüan honak zoin dira ?

Zer üdüritzen zaizü ments den? Zure uste, zoin dira kartielaren ahüleziak edo gainti gaixtoagoak ?

Nola ikusten düzü ziharen geroa ? Heben egoitez ? Hebentik joaitez ?

Zer etxekidüra düzü eüskarari, eüskal kültürari, Xiberoari ?

Zerk egiten dü heben egon zitean ?

Zerek joanaraziko züntüke hebentik ?

Biharko Xiberoa nola edo zer maneratan ikusten düzü ?

Nola ikusten düzü Xiberoko laborantxa, oraikoan eta geroan ?

NON ETA NOLA GAZTEEKILA HARREMANATAN SAR ?

Kirolen mündüan: zankobalua, eskübalüa, pirripita, pelota, dantza

Kültüra sailetan: Gamere eta Zalgize-lruriko maskaradak, XIIIO, Kauter balet, Etxahun alkartea, Uztaro, gaztetxe

Ikastetxeetan: Sohütako ikastegi teknologikoa, Laborantxa ikastegia

Besta batzordeetan: Urdiñarbe, Lexantzü, Aloze, Garindaine, Hoki, Ezpeize, Lanbara...

Bestetan: Süehaile gazteak, laborari gazteak, sonüegile gazteak

25 ORENAK AITZINAXEAGO PLANTATZEA

Helbürüa da ekeiezko edo ekeiez kanpoko egingei baten бүрүтzean ahal bezain beste talderen parte harraraztea eta hori Müsikaren Egüna beno hamabost bat egün lehenxeagoa. Egingei horren obratzeko epea 25 orenetakoa lizateke, artean eküratü gabe. Hala, izaten ahal lizateke maiatzaren 24etik, 11:00etan hasirik, maiatzaren 25eala, 12:00etara. Egingeien obratzeko leküa orano delberatzekoa da, taldeen haütüaren arabera: lekü pübliko, ateleria edo laborantxarako bastimentü, etxe edo beste gisako güne pribatü... Orotako hoberena lizateke Urdiñarben berean egin ledin, obra horien ikuskatzeko ebilbide bat egiten ahal beilizateke.

GAZTE TALDEAK NORK LAGÜNT LITZAZKE ?

Haütatürük liratekean geien arabera, honenbeste jenteren jakitate edo ündülgoaz baliatzen ahal lizateke: Michel Foucher, Asisko, Gonzalo, Kakots, Elsa Oliarj, informatikalari bat, laborari bat, arotz bat edo beste...


ORANOKOAN XEDATZECO BARATZEN DIRENAK:

Egítasmü horrentako behar ote da epai-mahain bat eta saristatze bat plantan ezarri ? Parte harzaleen eskertzeko gisan, ez lizatekea pentsatzen ahal Iratiko etxoletan astebürü batentako egonaldi baten eskentzea ? Hori ikustekoa lizatekealarik Xiberoko Botingoarekin eta Xiberoa-Herri Alkargoarekin...

EKAINAREN 7A, NESKENEGÜNA

Egünaldia hasiren da obra güzien presentatzearekin eta egileen argibide emaiteekin: 15 mn egingeikal. Obrak oro agertü eta aipatü ondoan, eztabadakatze bat antolatzen ahal dateke eta ikertze-llabürpen zerbait egiten sail desbardineta jente elibatekila: jentarte ikerzale, abokatü, ikerka egile, kasetalari... Bazkalaitzin, jentea kurritzen ahal date ikusgei diratekeen obren artean eta abürüpenen kürütxatxeko paradarik balizateke. Bazkalondoan, eztabadakak jarraikiko dü, beste esküalde zonbaitetan gazte elibatek obratü dütüen lanak presentatzearekila, ikusteko ea Xiberoarentako horietarik zerbait hartzen ahal lizateanez.

Bigarren parte batetan, berriz, ikusgarrien eta müsikaldien presentatzea eginen da.



- 2014EKO MÜSIKA EGITARAUA -

MOÏMOÏ

Euskal Herriko MOÏMOÏ saldoker eta NABE gertakizün sortetxeari begi keinü bat, horik direlarik 2009. urteaz geroztik üda güziz plantatzen den BALEAPOPOP / FESTIBALA kùltür gertakariaren builtarazleak. Jeialdi horrek botitzen dütü müsika esperimental eta alagerazaleak, arte plastikoak, kürützatzeak eta love vibration delakoa. Jenteen aitzinean ariko den artista batek eta MoïMoï Team-eko Djset-ak jente eta bazterrak harrotüko dütüe, rocketik elektroerala igaraitez.

BROKEN BROTHER BRASS BAND

Broken Brother Brass Banden müsika, karrika sonüztatzearen eta New Orléanseko jei eresiaren üztartze bat bezala da. Funk, Gospel eta Jazzetik hartzez debrüen airean ari dira, berek asmatzen dütüen ahaireak lau aizetara zabaltzez. Entzün-ikusgüne hanitxetan agertü dira, hala nola Donostia eta Getxoko Jazzaldietan, Zaragozako Jazz am margen jeialdian edo Amorebietako Haizetara karrika jeialdian. Beren tarranta bereziarekin ixustean agertüko direlarik, jentea egiazki atzamanik dateke.

NIKO ETXART ETA HAPA HAPA

Niko Etxart (Altzürükü, Zuberoa, 1953) euskal kantaria da. Haur denboran Parisen bizi eta 21 urtetan Xiberorat itzuli zen. Rock and Roll motako musika egin du nagusiki, nahiz eta kanta herrikoiengatik ere ezaguna da. Niko Etxart Euskal rockaren aitzidaria eta Hapa Hapa taldeko kideak -Mominic Earl, Baionan bizi den ingelesa, Kiki Graciet (ahosoinua), Didier Etxeberria alsaziarra (baxua), Pierre Hartmann (atabalak) eta Kristof Ithurritze (teklatua)- izanen dira bere ondoan kontzertu berezi hontan. Boskote horrekin hainbat urtez lan egin ostean bi disko plazaratu ditu: Gili-gilikatzen haut (1996) eta Minuette (2005).

BEGIZ BEGI

Algarri lotürik diren izadi eta gizadi elibaten arangatze, rockaren ulüntarzünaaren eta folkaren eztitarzünaaren arteko aurkiz aurkia, kùltüra aberats eta barna baten misteroarekila nahasirik, holakoa da Begiz Begiren mündüa, argi-ülunekoa, ageri eta ezagerikoa.

**GISA HANITXETAKO IKUS-ENTZÜNGIA BAT EÜSKAL
HERRIAN.**



ORCHESTRE NATIONAL DE BARBES

*Parise
Paris*

World Music kentean sailkatzen ahal den sonülari saldo honek Maghreb eskualdeko (bereziki Algeriako) musika süerte desbardinak – hala nola chaâbi, raï, gnaoua –, mündü osoan emaiten diren elibatekila – jazz, funk edo rock – botitzen dütü, ororen bürü sonüots oso berezi bat sortzez. Talde hontako arizaleak honenbeste herrialdeetakoak dira: Frantzia, Algeria, Maroko, Tunisia, Portugal... Osotik Tarbalano, Londresetik Montevideo artino, jenteak dantzan ari dira sonülari talde honen debrüen aireetan.

MUTEFISH

*Irlanda
Irlande*

Irlanda, Lituania, Polonia eta Ukraina herrialdeetarik jiten zaizkün musika joileak biltzen dütü Mutefish taldeak. Musika süerte hanitx emaitzez – trad music, reggae, punk, zeltiko –, Mutefish-ek entzünaraziko deizkü sonüaldi zinez bereziak bai eta trad alternatiba gisa desbardinetaokoak ere.

**MÜNDÜKO HERRIEN ILDOTIK, 25. MÜSIKAREN
EGÜN HONTAN, GURE BEHARRIEN XARMAGARRI
DÜTÜKEGÜ IRLANDA ETA MAGHREBEKO SOINÜAK.**



POIL

Lyon


Zinez ikusgarri eta entzugarri, bai eta heintto bat harro ere... holakoak dütügü POIL saldoko hiru müsika joileak. Horiek ez dakie zer den debekü, müsikaren joitean pürü. Ordüan, hanitx sonü kente herrokatzen dütüe: combo-rock, müsika ezta nola bazterren zapar-taraztearen heinekoa. Hirukote honek – taldearen izenak berak mar-katzen düan bezala – ilerik gabeko sonüari üko dio, eta Zappa, Frédéric Chopin edo Charlie Chaplin-en doinüak botitzez, bazterrak harrotzen deizkü. Ala mila debrüko aire hortan, behazaleak ez dira ez ekürü eta isilik egoiten...

CHEVEU

*Parise
Paris*

Bordelen abiatü zen talde honen müsika süerteak blues, punk eta müsika elektronikoan dütü herroak lantatzen. Garage-rock, errit-mo-mahain, teklatu psikedeliko sonü botitze bat eta sprechgesang maneratik hüllan den kantatzeko teknika bat... hori dira CHEVEU taldearen ezagügarriak. Europan, Ameriketako Estatü Batuetan eta Kanadan kurritürik, CHEVEU taldeak fama ejerra bildü dü rock inde-pendentearen mündüan.

UNDERGROUND KÜLTÜRARI IDEKITZE BAT, EGITA- RAU DESARAU BATENTAKO.



- HIRU EGÜNENTAKO EGITARAUUA -
- 2014 FLYER -

MUSIKAREN EGUNA 25

URDIÑARBE
ORDIARP

OSTIRALE 06/06

17:00 Erakusketa Eztabada
2050 Xiberoko Arxitektura

ANTZERKI

////////// CAC // CHISTERAN //////////

21:00 **BIHARKO LABORANTXA**
LARPSeko ikasleek emanik

ANTZERKI Gaü Eskolak emanik

KAUTER ZINFONIA



NESKENEGÜN

17:00 à 19:00

Müsika ikasgia Java üharteko gamelan
Lagun arte alkartea

IGANTE 06/08

MÜSIKAREN EGÜNA

///// CAC // HERRIAN // PLAZAN /////

10:30 Aintzindariak : Dantza bidekak

11:30 Zumba

12:00 Karrika müsika Ezpela / B Band

12:30 Koblakariak

13:00 Axurki bazkaria Ikastoleek zerbütatürük

15:30 KONTZERTUAK DOHAINIK

BROKEN BROTHER BAND Nafarra

BEGIZ BEGI Euskal Herria

NIKO ETXART

ETA HAPA HAPA Euskal Herria


MUTE FISH Irlanda

ORCHESTRE NATIONAL

DE BARBES Parise

POIL Lyon

CHEVEU Bordale



NESKENEGÜN 06/07

16:00 GORKI «les balles populaires»
Eskü joko komiko ta poetikoa

GAZTE TOPAKETAK 25o.

////////// CAC // PLAZAN //////////

09:30 Estreina

10:00 25 orenen aurkezpena

12:00 Harat Hunakak

13:00 Apaidü

15:30 Gazteak beste eskualdetan

17:00 Ikusgarri ta Sorkuntza

19:30 Pintxo / Edari / Karaoke

Musikalde eta Oilarrak

Ezpela / Broken Brother Band

22:00 KONTZERTUAK

MUTE FISH / FUMUT

MOÏ MOÏ KOLEKTIBOA